

Larratorra iritsi dira jaiak dagoeneko. Ostiraletik igandera bitartean Larratxoko enparantza jendez gainezka izango da bertan antolatu diren ekintza ugarietan parte hartzeko asmoz.

«Osteguna» Auzo Elkarteak aurtengo egitarauaren agurrean zera adierazi die auzotarrei: «*Aparkalekuen arazoa zela eta, orain dela hila-bete batzuk, auzokide talde bat bildu eta bilerak egin genituen arazoa konpontzeko asmoz. Baina segituan konturatu ginen auzo honek arazo asko dauzkala, hirigintza, ingurugiroa, langabezia, gaztedia, kirola...*». Hori dela eta, arazoak auzokide guztien artean errazago konponduko diren ustetan guztien laguntza eta elkar-tasuna eskatzen dute.

### Kukubiltxo taldea ostiralean

Ostiralean, hilak 10, 11.03etan jubilatuko guztientzat toka, bote eta igela txapelketak egingo dira plaza txikian.

Arratsaldeko 16.30etan Ipotx atsedean taldeak antolatutako antzarra jokoak egingo dute 12 urte arteko gatzetxoek. Horre-

tarako puntualitatea eta ondo pasatzeko gogoia eskatzen zaio jendeari.

Arratsaldeko 19.02etan Kukubiltxo talde imitaezinak bere «*Errieta*» antzezlanaren aurkeztuko die larratxotar guztiei Josu Artetxe enparantzaren. Eta ondoren, Oretako gaiteroekin batera Larratxoko kaleetan zehar ibili ahal izango gara buruhandi, erraldoi, hankaluze eta zenezekin.

### Gurutze Beltzak-en kontzertua

Gau partean, bederatzietan hasita kontzertua iragarrita dago plaza txikian, bertan Gurutze Beltzak, Demarras, Grossen Jarren eta Kaifas talde altxatarrek parte hartuko dutelarik.

Baina gauak ere aiton-amonentzako aukera izan behar duenez, 23.10etan dantzaldia izango dute Gurea egoitzan, Perez Lazarraga orkestra famatuarekin.

23.59etan Haritza taldearekin berbena izango da eta 24.00etan herri tanborrada egingo da Ja-

# Larratxoko jaiak asteburuan

Antzekia, kontzertuak, pilota partiduak, berbenak eta umore ona hiru egunetan zehar



Xabier

Larunbatean, 11etan hasi eta arratsaldera arte iraungo duen ekintza ugari antolatu ditu kirikinoa atsedean taldeak haur guztientzat. Arratsaldean, xake lehiaketak, mus herrikoia eta buruhandiak izango dira gurekin Larratxoko enparantzaren.

torrenak gidari direlarik.

Larunbat iluntzean antzerki saioa izango da eta Ausarta taldeko kideek «*No sólo se viene a lavar*» lana eskeiniko digute. Eta ondoren, dantzaldi ugari, Erreka, Perez Lazarraga Orkestra eta Ostadar taldea. Azkenik Zamorano Caballerrek ekarriko ditu Larratxora bere su artifizialak gaueko 24etatik aurrera.

### Igandean pilota partiduak

Igandea hilak 12, 11.32etan pilotazaleek

izango dute nora jo lau pilota partidu iragarrita bait daude. Eguerdirako haur tanborrada eta Iker eta Gurutze trikitilariak iragarrita daude eta arratsalderako Josu Artetxe enparantzaren Larratxoko dantza taldeak dantza ikuskizuna prestatu du jadanik. Larratxoko Jai Batzordeak gogorarazten die guraso eta haur guztiei astelehenean, hilak 13, barraka guztietan erdia kobratuko dela.

LARRAITZ GARMENDIA (Tfnos.: 391267)

**Z**

Larratxo 16,  
39 14 15 DONOSTIA

**CALZADOS  
ZABALO**

Oinetakoak - Poltsak  
eta osagaiak

**Astelehena  
taberna**